



DBHko ikastetxea, errealitate bihurtzetik gertuago.

Emakumeon Etxea:
feminismoa eta
parekidetasuna herrian
lantzeko espazioa

6

**Udaleko Gizarte
Zerbitzuak**
ezinbestekoak izan dira
pandemiari aurre egiteko

8

**Subvenciones
"Guztion Astigarraga"
para emprendedores:**
proyecto 115 pizzas
de Valerie Maza Flores

9

Zer duzu eskuartean?

Astigarragako alkateak, Xabier Urdangarinek, aldizkari honen aurkezpena egin nahi izan du



¿Qué tienes entre manos?

El alcalde de Astigarraga, Xabier Urdangarin, ha querido hacer una presentación de esta revista:

“Teníamos previsto publicar la revista municipal el año pasado, pero debido a la pandemia hemos tenido otras prioridades, y es ahora, en octubre, cuando llega el primer número.

Creemos en el municipalismo y en el pueblo basado en la participación ciudadana y para participar, primero tenemos que tener información. Estamos haciendo un gran esfuerzo informando a través de la web y las redes sociales de las cosas que hace el Ayuntamiento, pero el caudal de información digital es enorme y a medida que se van publicando tuits en las redes, se van quedando obsoletos. De alguna manera, en esta revista sumamos los tuits y resumimos lo que el ayuntamiento hace y va a hacer en las próximas semanas para leerlo con calma y tener una imagen más completa de la actuación municipal. Además, no debemos olvidar que hay ciudadanos a los que no les llega la información digital. Creemos que ahí tenemos un vacío que queremos cubrir.

El euskera tiene prioridad en la revista, pero la mayoría de los contenidos tienen su resumen en castellano. La revista se publicará cada cuatro meses: en octubre, febrero y junio; y en total, editaremos y distribuiremos 3.500 ejemplares. Se repartirá en todos los buzones de Astigarraga y también estará disponible en los edificios municipales”.

Zerk bultzatu du Txiohariaren sorrera? Zergatik orain?

Udal aldizkaria iaz kaleratzeko asmoa genuen, baina pandemiaren ondorioz, beste lehentasun batzuk izan ditugu eta mahai gainen geneukan zain. Uda aurretik hasi ginen lantzen eta urrian dator lehen zenbakia.

Zer helbururekin sortu da?

Herritarren parte-hartzean oinarritutako udalgintza eta herrigintzan sinisten dugu eta parte hartzeko lehendabizi informazioa eduki behar dugu. Ahalegin handia egiten ari gara webgunearen eta sare sozialen bidez Udalak egiten dituen gauzen berri ematen, baina informazio digitalaren emaria izugarri handia da eta argitaratu ahala zaharkituta geratzen dira sare sozialetako txio asko. Askotan gertatzen zait neroni, txio hau gero lasaiago irakurriko dut eta gero, gauza bat dela eta bestea dela, ezer ez. Nolabait esan, txioak batu eta udalak egiten duena eta hurrengo asteetan egingo duena laburbilduko dugu, patxadaz irakurri eta udalaren jardunaren irudi osoagoa edukitzeko. Gainera, ez dugu ahaztu behar badaudela informazio digitala iristen ez zaien herritarrak. Uste dugu hor hutsune bat badugula eta hori osatzera dator Txiokaria.

Zer eskainiko dio irakurleari?

Txiokaria nolabaiteko laburpen bat

izango da: zer egin du udalak azken bizpahiru hilabeteotan, zer egingo du hurrengoetan... Baina, horrekin batera, informazio zehatza ere eman nahi dugu, adibidez, lehen zenbakian udaleko Gizarte Zerbitzuei buruzko artikulua dator. Aldizkari irakurterraza da, informazio zehatza arin emango duena. Euskarak lehentasuna du aldizkarian, baina eduki guztien laburpenak gaztelaniaz doaz. Udalaren martxa nondik nora doan jakiteko tresna baliagarria izatea nahi genuke. Gero hortik aurrera, udalaren webguneari edo udaletxera deituta jaso dezakete herritarrek informazio gehiago.

Zer maiztasunarekin argitaratuko da?

Lau hilean behin argitaratuko dugu, urrian, otsailean eta ekainean. Guztira 3.500 ale argitaratu eta banatuko ditugu.

Nola banatuko da? Non aurkitu daiteke?

Astigarragako postontzi guztietan banatuko dugu. Horrez gain, udal eraikinetan ere eskura egongo da.

Nori dago zuzenduta?

Astigarrak guztiei. Gai edo atal bat batzuei interesatuko zaie, beste bat beste batzuei, baina ez dago soberan irakurri bat eman eta udalaren martxa nondik nora doan ezagutzeko.

DBHko ikastetxea, errealitate bihurtzetik gertuago

Astigarragako Udalak ikastetxea eraikitzeke orubea hiritartzeko lanak amaitu eta uztailean Osoko Bilkurak orubea Hezkuntza Sailari laga zion ikastetxea eraikitzeke obrei hasiera emateko.

2019ko apirilean, Hezkuntza Sailak Mendiandi-Aranibarreko orubeak irisgarritasun eza eta malda handiak zituela jakinarazi zion Astigarragako Udalari eta beste lur eremu bat proposatzeko eskatu zion. Eskaera hau bi urteko lan-keta prozesu baten hasiera izan zen, helburu oso argi batekin: Astigarragako gazteek Derrigorrezko Hezkuntza herrian bertan jaso ahal izatea.

DBHko ikastetxea Astigarragan

Duela 20 urte Astigarragak 3.500 biztanle zituen, gaur egun, kopuru hori bikoiztu egin da, 7.305 biztanle arte. Duela 20 urte ulergarria zen 3.500 biztanleko herri batek DBHko ikastetxe bat ez edukitzea, baina azken urteotan Astigarragak eduki duen bilakaera ikusita, derrigorrezko hezkuntza eskaintzea ezinbestekoa bihurtu da. Gaur egun 301 dira DBH ikastera beste herrietara doazen ikasleak eta datozen urteetan kopuru hau 425 ikaslera igozea aurreikusten da.

Orubea prestatzeko lanak amaituta

Udalak 730.000 euroko inbertsioa egin du guztira DBHko ikastetxea eraikitze-

ko orubea prestatzeko: aurreproiektuaren lanketa, pinudia eskuratu eta garbitu, orubea prestatzeko hiritartze lanak, linea elektrikoa lurperatzeko obra zibila, linea elektrikoa lurperatzeko Iberdrolaren lanak...

Lan horiek amaituta, Udalak orubea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari laga zion uztailean ikastetxearen ekuzio proiektua idatzi eta ikastetxea eraikitzeke obrei hasiera emateko.

DBH plataforma eta Udala prozesua azkartzeko elkarlanean

Proiektua idazteko eta ikastetxea eraikitzeke epeak oso luzeak dira eta proiektu hori ez dago sartuta Hezkuntza Sailaren 2019-23ko inbertsioen plangintzan. Horregatik, orain arte bezala, DBH plataformak eta Udalak elkarlanean jarraituko dute Hezkuntza Sailak DBHko ikastetxea eraikitzeke urratsak azkar ditzan. Horrelako espedienteen epeak luzeak diren arren, uste da zailena egina dagoela eta Hezkuntza Sailaren zeregina urratsez urrats aurrera egitea dela. Era berean, DBHko ikastetxea errealitate bihurtzeko laguntzeko prestutasuna adierazi da.

El instituto DBH, más cerca de hacerse realidad

El Ayuntamiento de Astigarraga finalizó las obras de urbanización del solar para la construcción del instituto y en junio el Pleno se lo cedió al Departamento de Educación para iniciar las obras de construcción del centro.

Los plazos de redacción del proyecto y de construcción del centro son muy largos y este proyecto no está incluido en la planificación de inversiones del Departamento de Educación 2019-23. Por eso, como hasta ahora, la plataforma DBH y el Ayuntamiento seguirán colaborando para que se aceleren los pasos en la construcción del centro de ESO.

Denbora lerroa

- **2019ko apirilean** Hezkuntza Sailak Astigarragako Udalari Mendiandi-Aranibarreko orubea desegokia zela jakinarazi zion.
- **2019ko uztailean** bilera egin zuen Udalak Hezkuntza Sailarekin. Beste oruberik aukeran ez zegoenez, Udalak orubearen irisgarritasun eta azalera arazoak aztertu eta proposamen zehatza egiteko konpromezua hartu zuen.
- **2020ko urtarrilaren 13an** Udalak egindako azterlan horiek aurkeztu zizkion Hezkuntza Sailari.
- **2020ko otsailaren 17an** Hezkuntza Sailak Mendiandi-Aranibarreko orubea ontzat ematen zuela erantzun zion, hiritartze lanak egitearen baldintzarekin (berezi lineak elektrikoa lurperatzea).
- **2021eko apirilean** amaitu zuen Udalak linea elektrikoa lurperatzeko obra zibila eta Iberdola linea elektrikoa lurperatzeko lanekin ekainean hasi zen.
- **2021eko maiatzaren 3an** DBH Orain plataformako ki-deek eta udal ordezkariak agerraldia egin zuten Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean. Batzordekideek konpromiso argia erakutsi zuten Astigarragan DBHko ikastetxe bat eraikitzeke.
- **2021eko ekainean** orubea lagatzeko espedienteak izapidetzen hasi zen Udala.
- **2021eko uztailaren 23an** Osoko Bilkurak Mendiandi-Aranibarreko orubea Hezkuntza Sailari lagatzeko akordioa hartu zuen.



1 Ehuntzen proiektua

Apirilean hasi zen 100tzen proiektua, Astigarragako ezagutza eta gizarte-ongizatea sortzeko herritar guztiei zuzendutako jardura multzoa. Bat, Bi eta Hiru aholkularitza-enpresa Astigarragako Udalarekin dabil lanean egitasmoa bete dadin.

Proiektua martxan jarri denetik 11 elkarten parte hartzea adostu dute: AEK euskaltegia, Aiztondo abesbatza, Emakumeon etxea, Eragiok abesbatza, Galtzaur, Gaztelekua, Goldea Herri Kirol Batzordea, Harituz, Norberto Almandoz Musika Eskola, Xaguxar eta Astigar dantza taldea. Elkarte hauekin bi parte-hartze saio ere egin dira, egin zitezkeen jarduerari buruzko ideiak sortu eta adinekoen kezka eta beharrak ezagutzeko.

Orain, bilerak antolatzen ari dira elkarte eta parte-hartzaileen lankidetzak aukerak zehaztu eta belaunaldien arteko jarduerak sortu, planifikatu eta gauzatzeko.

2 Galtzaur biziberritzea


Uztailaren 5ean Galtzaur erretiratuen elkarteak ezohiko batzarra egin zuen zuzendaritza batzorde berria izendatzeko. Zuzendaritza Batzorde berriak ezarritako helburu orokorra Galtzaur elkarte dinamikoa izatea da, jarduerak garatuz eta harremanak sortuz. Horrez gain, beste helburua hauek ere baditu: bazkideen ongizate orokorra hobetzea, ongizate emozionala eskaintzea, emakumearen parte-hartze aktiboa sustatzea, elkarte herriko jubilatu guztiengana iristen saiatzea, beste elkarteekin harremanetan jartzea, herriko elkarbizitza hobetzen saiatzea eta ahalik eta bazkide gehienek jardueretan parte hartzea.

Hauek dira Zuzendaritza Batzorde berria osatzen duten kideak:

- Lehendakaria: Bixente Arrizabalaga Bengoetxea
- Lehendakariordea: Concepción González Holgado
- Idazkaria: Inozentio Fernández Teran
- Diruzaina: Juan Antonio Pérez Piñeiro
- 1. bokala: Juan Castillo Cuesta
- 2. bokala: María Teresa Oscoz Alvarez

3 Gaztelekua kultur etxe zaharrean

Gaztelekuak urtebete darama kokapen berrian, izan ere, Joseba Barandiaran plazako lokala txikiagia zen eta Udalak Kultur etxe zaharrera lekualdatzea erabaki zuen. Leku handiagoa eta kokapen egokiagoa ditu orain Gaztelekuak.



4 Perurena lokala

Perurenako frontoian erabilpenik ematen ez zitzaion lokal bat egokitu du Udalak, auzotarrek erabil dezaten. Lokala egokitzeko obrak amaituta daude.

5 Arroitxuloko igogailua


Arroitxulo auzoa eta Santio Zeharra lotuko dituen igogailuaren obrak maitzean hasi ziren eta aurrera doaz. Helburua da zerbitzu eta eraikin publikoetarako irisgarritasuna hobetzea, hala nola, herri eskolara, kiroldegira eta udaletxera.



6



9



7



8



10

6 Haurreskola berria

Ekainean hasi ziren haur eskola berria egiteko obrak eta 8 hilabete inguruko iraupena izango dute. Lanak ondo doaz, jarritako epeetan.

Obrak gauzatu ahal izateko, Kontxa Etxeberria plazako 10-11 eraikinaren eskuinaldeko arkupea okupatu da, oinezkoei ahalik eta kalte gutxien sortuz eta Kontxa Etxeberria plazako sarrera ahalbidetuz.

7 Astigarragako jolas eremuak eraberritzeko prozesu parte hartzailea

Astigarragan auzo eta eremu berri asko daude, herria nabarmen hazi delako. Baina jolas eremu eta parke asko oso antzekoak dira, garai beretsukoak direlako eta berriketa lanak egitea ezinbestekotzat ikusi zen.

Berrikuntza lan hauek egiteko udalak erabaki zuen protagonistekin parte hartze prozesu bat egitea, hain zuzen ere, haur eta gaztetxoekin. Prozesu hori ekainean hasi zen. Haur eta gaztetxoek iritziak jaso eta zein jolasgune mota nahi dituzten pentsatzeko tartea izan dute. Horrela, eskolako ikasleek make-ten eta irudien bidez bere herrian faltan ematen dituzten elementuak adierazi dituzte.

8 Ibai-parkea

Ibai-parkea handitzeko egitasmoak jaso zituen boto gehien aurrekontu parte-hartzaileen bozketan (ondoren geratu ziren kiroldegia handitzea eta haur parkeak hobetzea). Udalak hasi da ibai-parkea handitzeko lanekin. Uztailetik irailera eremu berria garbitzeko lanak egin ditu. Datozen hilabeteetan beste hainbat hobekuntza egingo ditu.

9 Txomineñe pilotalekuaren berrikuntza lanak

Pilotalekua berritzeko lanak egin zituen Udalak, uztailaren 15etik abuztua amaiera bitartean.

Mantentze lanak egitea beharrezko ikusi zen, pilotalekuaren egurrezko egitura, teilatua eta euri urak jasotzeko ubideak egoera txarrean zeudelako. Horrekin batera, ezker paretaren atzealdeko euste-horman ere hainbat hobekuntza egin dira, urte askoan mantentze lanak egin gabe zegoelako. Lan hauek egin dira: ezker paretaren atzealdeko euste-hormako buloiak garbitu eta indartu; bestetik, egurrezko egitura, teilatua eta urak jasotzeko erretenak eta ubideak berritu, eta amaitzeko, margoketa lanak.

10 Ergobia

Ergobia auzoan zenbait hobekuntza ari da egiten Udala. Batetik, plazako zorua konpondu da (adokinak aldatu, konpondu...) eta bestetik, oholtza inguruko harri-plakak ondo jarri dira (askatzen hasita zeuden). Horrekin batera, zubitik Ergobia alderako espaloi eremua osatu eta txukunduko da. Urria eta azaroan zehar egingo dira lan horiek.

EMAKUMEON ETXEA: Feminismoa eta parekidetasuna herrian lantzeko espazioa



Astigarragako Emakumeon Etxea pasa den irailaren 25ean inauguratu zen, konfiantzarako gune eroso bat sortzeko helburuarekin, feminismoa eta parekidetasuna landu eta heziketa kontzienterako oinarriak sendotzeko.

Emakumeon Etxea dagoeneko herri askotan martxan dagoen proiektua da eta orain Astigarragako egunerokoaren paisaiaren parte da. Kudeaketa elkar-teari eta Astigarragako Udalarari dagokio eta hausnarketarako, formakuntzarako eta ekintzetarako erreferentzia gunea izan nahi du.

Astigarragako Emakumeon Etxea ama, alaba, gazte eta helduei, bertakoei eta

beste herrialdeetatik etorritako emakumeei zuzentzen zaie, belaunaldi eta jatorri ezberdinetakoak elkartu eta aurrera begirako bidea elkarlanean egiteko.

Emakume, elkarre zein norbanakoentzako topagunea

Astigarragako Emakumeon Etxearen helburu nagusiak emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzea eta emakumeon ahalduntzea bultzatzea dira.

Horretarako, espazio dinamikoa eta irekia sortu da, bertan Astigarragako emakume elkarteak zein norbanakoak elkartzeko. Guztientzat izango da espazio anitza, plurala eta askatasunekoa: ikasteko, prestakuntza eta informazioa jasotzeko baliatuko dena; jabeakuntza sareak sortzeko; emakumeen ahalduntzea, partaidetza eta presentzia sustatzeko; ikuspegi feministatik eztabaida eta gogoeta pizteko; indarkeria matxistatik gabeko elkarbizitza sustatzeko; era askotako aholkularitza jasotzeko: juridikoa, lan munduratzeko, erregulartasun administratiboa, sexuala, psikologikoa... Helburua Astigarragako Emakumeon Etxeak horiek guztiak barne hartzea da, espazioak berak osotasun hori izan dezan.

Jarduera ildoak

- Emakumeen parte-hartzea eta elkartegintza sustatzea, bizitzako arlo guztietan, norbanako jabeakuntzatik kolektibora.
- Eraldaketa soziala eta feminista lortzeko jardura estrategikoak bultzatzea.
- Emakume talde eta elkarten arteko elkarlana sustatzea.
- Emakumeen bizi baldintzak ez ezik, gizartean duten presentzia hobetzearen alde ere lan egitea.
- Berdintasunaren inguruko prestakuntza, sentsibilizazioa eta informazioa sustatzea.
- Berdintasunaren alorreko ikerkuntza, berrikuntza eta ikuspuntu berriak sortzearen alde egitea.
- Udal berdintasun politikan eragina izatea.

Vamos a revisar el Plan General: es el turno de la ciudadanía

El Ayuntamiento ha comenzado la revisión del Plan General de Ordenación Urbanística, instrumento importante para decidir cómo se va a organizar Astigarraga en los próximos 10-15 años.

El primer paso ha sido la elaboración de los informes de partida del diagnóstico desde diferentes perspectivas: situación socioeconómica, urbanismo, medio ambiente. Ahora es el turno de la ciudadanía. El ayuntamiento quiere responder a preguntas importantes junto a ellos: ¿cómo debe crecer Astigarraga? ¿Cuántas viviendas hay que construir en los próximos 10-15 años y dónde? ¿Dónde y cómo organizar las zonas verdes? etc.

El objetivo será recoger las principales necesidades y sentimientos de la ciudadanía ante el futuro de Astigarraga. Para ello, durante el mes de octubre se realizarán diferentes talleres y reuniones en los siguientes lugares:

- **27 de octubre**
17:30 Comisión asesora
18:30 Taller abierto al público
- **28 de octubre**
11:00-14:00 / 17:00-20:00
Carpa informativa en la plaza Joseba Barandiaran
- **29 de octubre**
11:00-14:00 / 17:00-20:00
Carpa informativa en la plaza Kontxa Etxeberria

Después, ciudadanos, agentes y vecinos tendrán que representar los diferentes futuros posibles de Astigarraga y elegir. El camino que se elija será la base principal para las dos próximas décadas de Astigarraga.

Toda la información sobre el proceso disponible en:

www.gurebidea.astigarraga.eus

Plan Orokorra berrikustera goaz: herritarron txanda da

Hirigintza Antolatzeke Plan Orokorra berrikusten hasi da Udala. Plan Orokorra tresna garrantzitsua da Astigarraga datozen 10-15 urteetan nola haziko den erabakitzeke.



GURE BIDEA ASTIGARRAGA PLAN OROKORRA

Lehen urratsa diagnostikoaren abiapuntu txostenak egitea izan da, hainbat ikuspegitatik: egoera sozioekonomikoa, hirigintza, ingurumena... Lan hori 2021eko urtarriletik irailera bitartean egin du udalak, aditu talde baten laguntzarekin.

Orain herritarron txanda da. Izan ere, diagnostiko horretatik abiatuta, galdera garrantzitsuei erantzun nahi die udalak herritarrekin batera: Nola hazi behar du Astigarragak?

Zenbat etxebizitza egin behar dira datozen 10-15 urteotan eta non? Berdeguneak non eta nola? Zer nolako ekipamendu publikoak beharko dira? Nola babestu nahi dira baliabide naturalak?

Galdera horiei erantzuteke ezinbestekoa da astigartarrok parte hartzea, herritarron bidea adostu eta erabakitzeke. Lehen saioetan diagnostikoan sakonduko da eta Astigarragaren etorkizunaren aurrean herritarren behar eta sentipen nagusiak jasotzea izango da helburu. Horretarako, hainbat tailer eta bilera egingo dira urrian leku hauetan:

Urriak 27

17:30ean aholku batzordea
18:30ean herritarrentzat tailer irekia

Urriak 28

11:00-14:00 / 17:00-20:00
Informazio-karpa Joseba Barandiaran plazan

Urriak 29

11:00-14:00 / 17:00-20:00
Informazio-karpa Kontxa Etxeberria plazan

Ondoren, herritarrek, eragileek eta aukideek Astigarragaren etorkizun posible desberdinak irudikatu beharko dituzte eta horien guztien artean, alternatiba, bidea aukeratu beharko dute. Aukeratzeko bidea izango da Astigarragaren hurrengo bi hamarkadetakoko oinarri nagusia.

Plan orokorra berrikusteko prozesuaren inguruko informazio guztia webgune honetan dago eskura. Bertan jasotzen dira plan orokorra, plana berrikusteko egin den diagnostikoa eta partaidetza prozesuari buruzko argibide guztiak.

www.gurebidea.astigarraga.eus

Udaleko Gizarte Zerbitzuak ezinbestekoak izan dira pandemiari aurre egiteko

Pandemia garaiak Astigarragako Udaleko Gizarte Zerbitzuen lana herrian zabaltzen lagundu zuen. Izan ere, bolondres sarea landu zuten herritarren artean. Gizarte Zerbitzuak “oinarrizko zerbitzu” bihurtu ziren hilabete horietan, inoiz baino gehiago.



Adineko pertsoneri jarraipen telefonikoa egiteaz gain, boluntarioen sarea eratu eta aurkeztu ziren arreta-beharrak (erosketak, botikak, behar bereziak...) koordinatu zituzten elkarlanean. Bolondres moduan izena emateko udaleko webgunean sartu eta informazio kutxatila betetzea nahikoa zen. Bertan, bi boluntariora-ekintza bereizten ziren: “Etxean dauden adineko pertsoneri erosketak egin (elikagaiak eta botikak)” eta “Haurrak zaindu aldi batez”.

Azken hilabeteotako ekimen honi eta egun udaleko Gizarte Zerbitzuek betetzen dituzten zereginiei esker, 1.000 familia baino gehiagok jaso dituzte zerbitzu horien onurak eta laguntzak.

Gizarte Zerbitzuen saila zeregin haueztaz gain, beste hainbat zereginiez ere arduratzen da urte osoan zehar. Sailaren helburu nagusia herritarren artean berdintasuna lortzea da, hainbat arrazoiengatik herrian dauden desberdintasunak minimizatuz.

Baina, ezagutzen al dituzu sail honek eskaintzen dituen gainontzeko zerbitzuak?

- Adineko pertsona, edota desgaitasun edo menpekotasuna duten pertsonen arreta bermatzen dituzten ekintzak. Etxez etxeko laguntza zerbitzua, babespeko apartamentu, eguneko

zentro, telelaguntza eta aldi baterako egonaldiak eskaintzen dituzte herriko zenbait egoitzetan.

- Larrialdi egoeran dauden herritar edo familientzako etxebizitzak bermatzea. Gizarte bazterkerian aurkitzen diren herritarrentzako alojamenduak eskaintzen ditu sailak. Horrez gain, gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko baliabideak ere eskaini eta laneratzeko ekintzak antolatzeaz arduratzen dira.
- Prestazio ekonomiko batzuk ere eskaintzen dizkiete etxebizitza, argindarra, etxetresna elektrikoak eta lehen mailako beharrak ordaintzeko. Horretarako, udal dirulaguntza edo Menpekotasun Legeak jasotzen dituen diru laguntzak kudeatzeaz ere arduratzen dira.
- Adin txikikoei dagokienean, adingabeak dituzten familiei ere laguntza zerbitzu propioa eskaintzen die sail honek. Laguntza psikologo batek emandako familia-terapian eta familia-hezitzaile batek etxean emandako laguntzan oinarritzen da. Esku-hartzearen helburua adingabeen garapenean eragina duten disfuntzio familiarak zuzentzea da.
- Prebentzio-zerbitzuaren helburua taldeko eta komunitateko esku-hartzea

da, epe ertain eta luzeko gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko eta adingabeen komunitate-bizitzan erabateko parte-hartzea izateko. Kudeaketa honetarako ekipo propioa dute eta eskola eta beste eragileekin batera koordinaketa lantzen da.

- Indarkeria matxista eta sexu erasoez ere arduratzen dira sailean. Horretarako, arreta zerbitzuak eskaintzeaz gain (non informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza psikologikoa ematen duten), laguntza soziojuridiko eta larrialdiko harrera ere eskaintzen diote behar duten biktimei.

Zerbitzu hauez guztiez gain, aipatzeakoa da beste zenbait zerbitzu espezializatuekin ere egiten dutela lan sail honetan, hala nola, gobernu kanpoko erakunde, Galtzur erretiratu etxe edota herriko parrokia, zeinak, gizarte-bazterketako egoeren aurrean irtenbideak bilatzean oinarritzen diren.

Gaur egun, gizarte zerbitzuetara joatea lehen baino normalizatuago eta arruntagoa ikusten badugu ere, pandemiak sail honen garrantzia azpimarratzen lagundu digu. Izan ere, norbanakook izan ditzakegun behar eta kezka ugari irtenbidea bilatzen lagundu diezaguen sail bat da eta bilatzen gabiltzan berdintasun horretara iristeko tresna oso baliagarria.

“Somos diferentes porque tenemos un propósito más allá de vender pizzas, que es resaltar las bondades de esta tierra”

Un año más, el Ayuntamiento ha puesto en marcha las subvenciones “Guztion Astigarraga” para emprendedores. En esta edición, el proyecto 115 pizzas de Valerie Maza Flores y su marido ha sido el primer destinatario del programa y ha seleccionado un local vacío de la bolsa pública municipal para iniciar su actividad. Hablamos con ella:



¿Por qué decidiste poner en marcha este negocio?

Vimos que había una necesidad por cubrir en el pueblo y tanto mi esposo como yo teníamos claro que queríamos abrir un espacio diferenciador y con un producto de calidad con un concepto fresco, accesible y divertido. Nosotros apostamos por el crecimiento del pueblo y entre nuestros propósitos está resaltar sus bondades y sumar valor gastronómico a la zona.

¿De dónde viene el nombre?

115 hace alusión al código postal de Astigarraga, y el concepto que le acompaña: Sagar Ore Ama o Masa madre de manzana, se refiere al método que uti-

lizamos para acelerar el proceso de fermentación de la masa madre que utilizamos para elaborar nuestra masa de pizzas. Quisimos resaltar en todo momento a través de nuestra identidad visual ambos conceptos, con la idea de generar una conexión más directa y emocional con los habitantes de la zona y a su vez transmitir nuestra identidad, propósito y valores: Negocio familiar, sostenibilidad, el símbolo de nuestras pizzas como un lienzo en blanco para explorar y jugar con la materia prima, la manzana como epicentro y símbolo que conecta directamente con nuestro público y la zona donde nos encontramos y claro el 115 haciendo referencia al código postal de Asti.

¿Qué tiene de especial el local que has elegido? ¿Por qué lo elegiste?

De las ventajas que más destacamos es que nos encontramos en la nueva plaza de la mujer de Astigarraga, esto nos permite disponer de una amplia y bonita terraza para el uso y disfrute de toda la familia y por supuesto compartir clientela con nuestros amigos del Zipotza. Estamos en un buen punto, al ser un local que hace esquina nos da una excelente visibilidad para el transeunte. Nuestra idea siempre fue tener una cocina a vista del cliente, un obrador donde se pueda ver que todo lo hacemos casero, que cuidamos la estética y limpieza del espacio y que las técnicas que utilizamos a la hora de cocinar se ejecutan de forma

profesional. El local al ser casi todo de cristal hemos conseguido ese objetivo que desde el nacimiento del proyecto soñábamos ver materializado.

¿Qué ha supuesto para ti recibir esta ayuda?

Nos parece una muy buena iniciativa por parte del Ayuntamiento que apoye y fomente la actividad comercial de la zona y la puesta en marcha de nuevos proyectos de gente joven, con ideas frescas que por supuesto suman valor a la zona. Poner en marcha un proyecto gastronómico en estos tiempos donde el sector está en plena transformación, supone para nosotros como nuevos emprendedores, un esfuerzo económico potente y, por supuesto, estamos muy agradecidos por haber contado con iniciativas como esta.

¿Qué te ha impulsado a llevar a cabo este negocio? ¿Lo tenías todo pensado?

Sí, nos costó año y medio poder materializarlo desde que nos planteamos emprender nuestra idea. Una pandemia de por medio con más todas las consecuencias económicas y limitado acceso a financiamiento como consecuencia de la crisis. No obstante nunca desistimos de nuestro propósito principal y estamos muy contentos por ello, porque entendimos que vinimos a alegrar a muchos y que, además de ser la hospitalidad nuestra pasión y motor, nos enorgullece ser la primera pizzería artesana del pueblo, trayendo un producto de alta calidad, a un precio accesible, que empodera al productor local y siempre dejando en

alto las bondades de la zona que nos ha acogido y por la que apostamos fielmente.

¿Qué es hoy en día 115 pizza? ¿En qué momento se encuentra?

115 es un bebé de tres meses! Ya empezamos a entendernos y conocernos mejor, pero aún así requiere de mucha atención, mimo y adaptación para entender la demanda de la zona y clientela. Somos la primera pizzería artesana del pueblo y realmente estamos agradecidos por el caluroso recibimiento que hemos tenido por parte de todos los vecinos. Ahora mismo estamos por lanzar el nuevo cambio de carta adaptado a la temporalidad de los alimentos de la estación del año en la que entramos. Con mucha ilusión, ganas de hacer las cosas bien, siempre buscando la mejora continua y motivados a seguir creciendo y llevar nuestras deliciosas pizzas a otros pueblos de similares características.

¿Qué tiene de diferente 115 pizza?

La masa con la que elaboramos nuestras pizzas son de larga fermentación, siendo más ligera y facilitando su digestión al ser una masa muy bien lograda. La calidad forma parte de nuestros valores transversales, y esto se demuestra en la calidad óptima de toda nuestra oferta gastronómica, la calidad de nuestra materia prima, la estética curada de nuestra comunicación y establecimiento, los métodos y técnicas con los que manipulamos nuestros productos, un servicio cercano y que hace sentir al cliente como en casa. Somos diferentes porque tenemos un propósito más allá

de vender pizzas, que es resaltar las bondades de esta tierra.

¿Nos cuentas la anécdota del logo? ¿Lo ha creado un tatuador también emprendedor, no? ¿Cómo así?

La ilustración de nuestras cajas de pizzas la han diseñado nuestras amigas de Mara-Mara Tattoo a quienes admiramos mucho por su calidad humana y talento. Teníamos claro que queríamos una caja que causara impacto, que la experiencia a domicilio tenía que ser lo más cercana a la experiencia en el local, y son estos pequeños detalles los que marcan la diferencia. Por supuesto, no dudé en pedirle a Eva y Pino que lideraran esta ilustración para nosotros, transmitiéndonos nuestro propósito de marca y jugando con ciertos elementos icónicos de la zona, dimos con un dibujo precioso del cual todos estamos muy orgullosos y que sin duda toca la fibra de nuestro cliente local!

¿Qué le dirías a alguien que quiere emprender pero no se atreve a dar el paso?

Sin duda emprender es un viaje con altos y bajos pero lleno de satisfacciones al ver materializarse lo que con tanto esfuerzo, dedicación y paciencia pasó de ser una idea a algo palpable. Creo que las oportunidades están allí afuera para todos y es cuestión de valentía y perseverancia no desistir de los sueños... sin duda, vale la pena luchar por ellos, y al menos nosotros, desde 115 mantene-mos despierta y viva esa vena emprendedora que nos caracteriza y estamos seguros que vamos ¡a por más y mejor!

BA AL ZENEKIEN?

Ba al zenikien... laz abiatu zituela Merkataritza ekintzailertza dirulaguntzak Udalak? Lehen edizio horretan 3 proiektu lagundu zituen: Eingou ikasgunea, Mara-Mara Tattoo Studioa eta Oumaima ileapaindegia; guztiak emakumeak lideratutako proiektuak.

Ba al zenikien... ideia bat garatzeko eta martxan jartzeko doako ekintzailertza zerbitzua eskuragarri dutela astigartarrak? Eskualde mailako zerbitzua da eta *Ekinean* du izena. Interesa duen orok Udalean galdetuz edota "Guztion Astigarraga" webgunea kontsultatuz topa dezake informazio gehigarria.

Ba al zenikien... 2019an egindako ikerketaren arabera Astigarragako erdigunean dauden merkataritza lokalen %44

hutsik dagoela? Egoera hori iraultzea da "Guztion Astigarraga" egitasmoaren helburua, eta merkataritza dirulaguntzak emateaz gain, lokal hutsen poltsa publikoa ere osatu du Udalak. Bertan 10 lokal daude eskuragarri momentu honetan: <https://guztion.astigarraga.eus/lokalkomertzialak/eu/lokalak>

Ba al zenikien... Astiko dela Astigarragako Merkatarí, Ostalari eta Zerbitzuen elkarte? 2008 urtean sortu zen, eta gaur egun 43 establezimenduk osatzen dute.

Ba al zenikien... Komertzio txikiak emakumezko aurpegia duela? Astikoko bazkideen artean negozioien arduradunen % 63 emakumeak dira, eta Udalaren estimazioen arabera, ehuneko hori are eta handiagoa izan daiteke sektore osoa kontuan hartuta.

Zein da udaltaldearen iritzia autobus zerbitzu berriari buruz?

Uztailaren 1ean Foru Aldundiak Buruntzaldeko autobus zerbitzu berria jarri zuen martxan. Horrek zenbait aldaketa ekarri zituen une horretan Astigarragan zegoen zerbitzuan eta kezka handia eragin zuen herritarrengan, ezingona eta haserrea nabariak izan dira.

BU13 edo A2 linearen maiztasuna handitu egin da irailetik aurrera. BU12 edo A1 linean berriz murrizketa handiak egin ditu Foru Aldundiak, maiztasunean nahiz geltokietan. Herritarren plataforma bat ere sortu da, 1870 sinadura bildu dituena.

Baina, zein da zuen udaltaldearen iritzia?

El 1 de julio la Diputación Foral puso en marcha el nuevo servicio de autobuses de Buruntzaldea. Las quejas, malestar y enfado de los y las astigarras han sido evidentes. La frecuencia de la línea BU13 o A2 ha aumentado a partir de septiembre. En la línea BU12 o A1, la Diputación Foral ha realizado recortes importantes tanto en la frecuencia como en la supresión de las paradas. También se ha creado una plataforma ciudadana que ha recogido 1870 firmas.

¿Cuál es la opinión de su grupo municipal?

Xabier Urdangarin

EH Bildu

Foru Aldundiaren jarrera tamalgarria izaten ari da. Zerbitzu berriak ez die erantzuten astigarraren beharrei.

2014tik autobus zerbitzu berbera izan dugu eta nahiz eta biztanle kopurua %33 handitu, uztailan Foru Aldundiak autobus zerbitzua %14 murriztu zuen. Maiztasuna gutxitu eta geltokiak kendu. Gero irailean BU13-A2 linea indartu egin dute. Baina BU12-A1 linean egindako murrizketak ezin ditugu onartu. Asteburuetan murrizketa %40 ingurukoa da. Gainera, Buruntzaldeko herri bakarra gara ospitaleekin edo unibertsitate campusarekin garraio publikoko zuzenik ez duena. Noiz arte?

Herri Plataformak 1.870 sinadura bildu ditu, inoiz Astigarragan bildu den sinadura kopuru handiena. Garbi dago astigarraren iritzia. Eta garbi dago udal gobernuaren eta EH Bilduren iritzia. Ekainean onartu genuen mozioa eta plataformaren eskariak bat datoz.

Astigarragako EAJ eta PSE-EE murrizketa hauek gauzatzeko ezinbesteko kolaboratzaile izan dira. Hasieran, ospitaleko autobusa kentzea ahalbidetu zuten, ondoren, sagardotegietara zetozenentzat autobusa udalak ordaintzea onartu zuten. Esan zuten EH Bilduk oposiziotik salatzen genituen murrizketak ez zirela gertatuko eta murrizketak abian jarri direnean, ez dira gai izan murrizketak gaitzetsi, autobus-geltokiak mantendu eta ospitaleetara eta unibertsitateetarako autobusa eskatuz EH Bilduk aurkeztutako mozioa babesteko. Egoera honen erantzule bakarrak EAJ eta PSE-EE dira, izan Astigarragako zein BBNNetako ordezkariak.

Astigarrarekin bat egiteko unea da eta EH Bildu gogoz saiatuko da Astigarragako EAJ eta PSE-EEekin, aho batez, Foru Aldundiari argi eta ozen eskatzeko behingoz Astigarragari hiri arteko garraio zerbitzu publiko egoki bat eskain diezaiola.

Nerea Zusberro

EAJ-PNV

Aurreko legegaldian, EAJ-PNVko udal gobernuak 17 erreformatu lortu zituen egunero A2 autobus linean (orain BU13): 8 Oialumetik Donostia-tiara eta 9 kontrako noranzkoan. Sagardotegi garaian ere zerbitzu bereziak lortu zituen.

Gaur egun, EH Bilduren agintaldian, BU12 linean (lehen A1) ordutegi murrizketa handiak egin dira eta, gainera, Astigarragako barnealdeko geltokiak eta Loiolatik aurrera beste hainbeste kendu dira.

Aurreko legegintzaldian, erreformatuak lortuz gain, gobernu jeltzaleak garraio publiko zerbitzuaren inguruko inkestak egin ziren astigarrarekin. Herritarren eratzunengatik jakin izan genuen astigarrarekin garrantzia handia ematen ziotela BU12 (A1) autobusak herri barruan egiten zuten ibilbideari. Hortaz, EAJ-PNVk ekaineko osoko bilkuran jakinarazi zion EH Bilduko gobernuari barne-geltoki horiek mantentzearen garrantzia, herritar guztien irisgarritasuna bermatzeko. Eta zer egin zuen EH Bilduk? Ezer ez. EH Bilduk ez zion Aldundiari eskatu udalerraren barruko geltokiak mantentzeko.

Beraz, azken hilabeteetan Astigarragako garraio publikoaren zerbitzuak hainbeste okerrera egin badu, egungo gobernuaren utzikeria eta kudeaketa txarragatik da. Garraio publikoaren defendatzaile bezala aurkezten badira ere, ez dute Astigarragan bizi garenon interesak behar bezela defendatu Aldundiaren aurrean.

Mikel Duran

PSE-EE

Buruntzaldeko emakida berriak inguru horretako garraio publikoaren hobekuntza dakar, malgutasun-printzipioa barne hartzen duen sistema bat baitauka, herritarren unean uneko erabileren arabera zerbitzuan beharrezko hobekuntzak egin ahal izateko.

Tras el largo periodo desde su diseño y licitación en 2018 hasta la puesta en marcha el 1 de julio de 2021, es normal la necesidad de modificaciones y mejoras de esta concesión, conforme a los datos de ocupación y uso que se van obteniendo día a día.

En concreto, las nuevas adaptaciones implementadas en Astigarraga tras la puesta en marcha de la concesión, han sido que la línea BU13 (A2) ha aumentado su frecuencia pasando de tener autobús cada media hora a tenerlo cada 20 minutos. Y la línea BU12 (A1) para coordinarse con la BU13 las salidas desde Hernani y Donostia se establecen a y 15 y a y 45 minutos. Este cambio de hora da respuesta a la petición del Ayuntamiento de Astigarraga de coordinar la línea con los horarios del Colegio La Salle de Donostia.

Adi hurrengo aste eta hilabeetako hitzorduei! Parte hartu!



Aurrekontu parte-hartzaileak 2022

AZAROAN ZEHAR

2022ko udal aurrekontuak lantzeko bilera eta saio irekiak egingo ditugu ohi bezala, erdigunean, auzoetan...

Presupuestos participativos (noviembre): sesiones abiertas para los presupuestos municipales de 2022



Plan orokorra, diagnostikoa

URRIA ETA AZAROAN

Plan orokorraren diagnostikoari ekarpenak egiteko saioak eta informazio karpak.

Aportaciones al diagnóstico del Plan General (octubre y noviembre): sesiones abiertas, carpas informativas...



Kiroldegiari buruzko partehartze prozesua

AZAROAN ZEHAR

Kiroldegia handitzeko proiektuari buruzko parte hartze prozesua, ekarpenak jasotzeko.

Proceso participativo sobre el polideportivo (noviembre): aportaciones al anteproyecto de ampliación.



"Kontxa Etxeberria" Foroa, prebentziorako foro berria

AZAROAN

Haur, gaztetxo eta gazteen heziketa integralerako eta prebentziorako foroa. Lehen bilera azaroan.

Kontxa Etxeberria Foroa (noviembre): nuevo foro de participación para la educación integral y la prevención de los y las niños/as, adolescentese y jóvenes de Astigarraga.



Sagardoetxearen etorkizuna, herri galdeketa

URTE AMAIERAN

Sagardoetxearen etorkizuneko norabidea erabakitzeko herri galdeketa.

Consulta ciudadana (finales de año), para decidir entre todas y todos la Sagardoetxea del futuro.